

Astekaria

Z

E

R

R

A

K

B

elgoi

# Primerako futbolistak



ERAKUSKETA BERRIA



**JUARISTI** Aroztegia

PROIEKTU eta  
ERREFORMAK


LEIHOAK - ATEAK

Santa Ana, 18 - Tel. 74 29 94 - ELGOIBAR


# PAGOAGA S.A. Iturgintza



- ↳ ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK
- ↳ IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN



**GAS INSTALATZAILEA,**  
**IG4 baimenarekin.**  
**GAS NATURALA ETA**  
**PROPANOA**

 **74 02 79**  
**74 05 12**

Faxa: 74 35 65  
San Antolin Kalea, 13  
ELGOIBAR

# EIBAR

OSASUNDEGIA

*Urkizu pasealekua, 11.*  
*(Orbeako dorrea, lehenengo solairua).*  
*Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04*  
**EIBAR**

- |                            |                          |
|----------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia             | 9- Barne medizina        |
| 2- Kardiologia             | 10- Ortodontzia          |
| 3- Zirugia                 | 11- Otorrinolaringologia |
| 4- Dermatologia            | 12- Pediatria            |
| 5- Dietetika eta Nutrizioa | 13- Psikiatria           |
| 6- Foniatria               | 14- Radiologia           |
| 7- Ginekologia             | 15- Traumatologia        |
| 8- Laborategia             | 16- Urologia             |

elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12  
Faxa: 74 37 04

**ARGITARATZAILEA:**

Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**

Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**

Ainhoa Lodoso.

**ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:**

Andres Alberdi.

**KAZETARIK:**

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

**PUBLIZITATEA:**

Myriam Aldazabal.

**MAKETATZAILEA:**

Maite Rementería.

**ADMINISTRAZIOA:**

Amaia Martín,

M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**

Irati Agirreazaldegí, Xabier

Ansola, Nekane Aranburu,

Pello Arrieta, Juan Mari

Elustondo, Ina Garagarza,

Ane Goikoetxea, Amaia

Gorostiza, Juanito

Gorostiza, Maite Iriondo,

Edu Iriondo, Alberto

Iriondo, KOKOE, Imanol

Larrañaga, Javi León, Juan

Mari Mendizabal, Milagros

Oiarzabal, Benantzio

Otaegi, Aitor Zabaleta,

Julen Zabaleta, Deñe

Zabalo, Lucia Zubiaurre.

**BANAKETA ARDURADUNA:**

Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.800 ale

**LEGE GORDAILUA:**

SS-1.038/92

**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
esanen eta iritzien  
erantzukizunik.



• kutxa fundazioa  
• fundación kutxa

# ZENBAT BURU



## HAINBAT ABURU

### Osasuna litroka

**G**ernua esaten badut, kurioso samarra geldituko zait, eta txisa esanda baino zientifikoagoa ziur. Dena den, Altzolatik San Migelera bitartean ibiltzeko, eta urrutixea-go joan nahi izanez gero ere, bigarren izena etxeoagoa edo ezagunagoa zaigu. Baliteke hainbati, gaia zertxobait ezatsegi-na gertatzea, batez ere, tabernan zurito edanean dihardutenei. Arazorik gabe, utzi gerorako; zurittoa, noski. Gauzak apur bat arintzen baditu, ez zait bat ere axola izenik ez aipatzea.

Horren nazkagarri iruditu dakigukeen “hori”, oso erabilgarria omen da, ordea, osasun kontuetan. Medikuntzan, azterketarako lagin bezala erabiltzeaz gain, bada “horri” sendagai propietaterik aurkitu dionik. Nork daki? Azken egunotan albiste bitxi moduan azaldu digutena, aspirina hartzea beste arrunta begitan dakiguke aurki.

Irratian entzun dudanez, zientzia berri bat indartzen ari da Hego-Amerika aldean; Gernulogia edo dei egin diezaioketuna. Hala, norberak bere ... “hori” edatea, hamaikaxo gaitzez beste egiteko bidea omen dute: ez garatzak soilik, burukomina, artrosiak, giltzurrunetako harriak, kantzerrak, zirkulazio txarra... Hori bai, bakoitzak berea, Jaungoikoaren legea. Ez da inolaz ere gomendagarria lagunaren “produkturik” kontsumitzea; hark inolako osasun arazotxorik pairatuz gero, geuregana baitezakegu.

Aitzin zientzia berri deitu badiot, lehen

aldiz egun hauetan entzun dudalako izan da, bai baitakit, aspalditik burutzen den praktika dela. Indiarren ohitura zaharretako bat omen da, goizean jaiki berri, oraindik baraurik, mintzagai darabilgun “gauza hori” edatea; guztia osasunagatik bedi. Antzinako erromatar emakumeek ere, topatu zioten bere erabilgarritasuna: hortzak zuriagotzeko primerakoa omen zen; batik bat, lusitaniarrena, Inperioko gogorrena izanik. Ez zetena zera zen, daukan amoniakoaren bertute garbitzaileen erru baino ez zela.

Nik Biologiak dakidan gutxi, ezin ausar naiteke arrazoi zientifiko bat ematen, baina beti uste izan dut gorputza barnetik garbitzeko beste modu bat baino ez zela komuna bisitatze hori; bertan, toxinak eta bestelakoak kanporatzen zirela eta.


Hau guztia kontu bat baizik ez da izango agian, hala ere, inori diru gehiegirik emango ez diolakoan nago, esan bezala, bakoitza bereaz konpondu behar baldin bada behintzat. Zerbait merkaturatzekotan, txisaloreak izango lirateke, ez?

Pentsatzeari ekin eta sekulako eralkia egin bide dugula otutzen zait, horrenbeste gernu alperrik galtzen. Zenbat litro osasun joan ote zaigu komunean behera? Zenbat osasunez gainezka ote daude mila kaleko ertzak?

Gauzak horrela, erremedio honetan sinets dezakeen guztiei errespetu osoz, nahiago dut gosarian kafesne bero bat hartu.

Lucia Zubiaurre

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## GALDERAK

**“Udal Liburutegian ezin al da talde-lanik egin? Eta ezin bada, non egin behar ditugu?”**

Udal Liburutegiko arduradunekin egon gara eta eurek esan digutenez liburutegia ez da talde-lanak egiteko lekua. Non egin behar diren? Hori ikastetxeek eta ikasleek konpondu beharreko arazoa da.



## KEXAK

- Emakume bat etorri da BARRE-Nera **ETBk Kilometroei** buruz emandako saio berezia benetan txarra izan zela esateko. Kexa hau jende askorena dela esan digu eta Kilometroetan ETBn erakutsitakoa baino gauza polit eta interesgarriagoak izan zirela azaldu digu.

- Institutuko ikasle batzuk idatzi bat bidali digute **Udal Liburutegiarekin kexu**. Itxura denez Liburutegiko arduradunek ez diete taldekako lanak egiten lagatzen eta eurek diotenez ez dute beste tokirik lanak egiteko.

- 11 urteko neska kuadrila bat etorri zaigu kexatzen **KOKOEn erakusketan sartzen utzi ez** zietelako 18 urte ez zituztelako. Beraien ustez eskolan eman dizkiete sexuari buruzko zenbait ikasgai eta prestatuta ikusten dituzte euren buruak erakusketa ikusteko.

## ESKUTITZAK

### Isiltasuna=heriotza

**D**uela aste batzuk, hirugarren-go pertsona batek esanda, orain dela urtebete oheratu nintzeneko mutilak HIESaren lehenengo sintomak zituela jakin nuen. Imajinatuko duzuen bezala, beldurra hezurretaraino sartu zitzaidan. Horrela, frogak non egin ez nekenez, anbulategira deitu nuen informazio bila. Harri eta zur gelditu nintzen, ez ziren gai izan bost minutuko itxaronaldia eta gero erantzuna emateko. Honek argi eta garbi utzi zidan HIESak Elgoibarren zer suposatzen duen, eta bizi dugun egoeraren adierazgarri iruditu zitzaidan.

Hau da, HIESdun bat hiltzen denean asko joan izan gara eskuak helduaz kate bat eginda kaleak korritzera. Baina, bitartean eguneroko bizitzak aurrera darrai eta gaixotasun honen aurrean “Errotatxo”ren lana izan ezik, isiltasuna da nagusi: kutsatu nintzakeen mutilak ez zidan ezer esan, anbulategiak ez dit hil ala biziko telefono bat eman, politikoki Udalak ez du ezer egin Drogomenpekotasun Saileko Teknikariak egindako ekintza puntualen bat aparte. Bitartean isiltasuna=heriotza, agian kotilloen zurrumurrua: eh!, ba al dakizu hura ere seropositiboa dela!, gaixoa!

Gainera, HIESarekin heriotza, sexua edo drogak bezalako tabuak daude jokoan. Izan ere, dirudienek birus hau katolikoa omen da, zeren eta frogaren erantzuna jaso eta gero etxean komentatu nuenean ez zuten gauza behar bezala ikusi. Hots, prak-

tika arriskutsu baten aurrean zalantza eduki eta frogak egitea erabaki. Ez, gauza beste modu batera ikusi zuten, harremanak sexu bereko beste pertsona batekin izan zirenez, guztiaren errudun nire homosexualitatearen. Badirudi oraindik askotxo ez dela enteratu birusak ez duela ideologia edo erlijioz ulertzen, nahiz eta zenbaitzuek agian horrela nahi izan. Azken finean, berdin dela aberats ala txiro, gizon ala emakume, beltz ala zuri, heterosexual edo homosexual birusak kolpatua izateko.

Egun hauetan heriotzari beldurrak baino gehiago isiltasun hipokrita honek mindu nau. Ezin da HIESaz hitz egin (zergatik errazago kantzerraz?), Elgoibarren informazioa azkar (berehala) lortzea zaila da (pasa direnak eta gero!), eta gainera ia-ia ezin diozu inori ezer esan, izan ere gehien-go moralak (gure gizarte judutar-kristau euskaldunak) ez baitu horretaz ezer jakin nahi, agian sexu edo drogekin harreman txarrak dituelako.


Beno, hurrengo hiltzen denean numeroak egingo ditugu, kezkatu burua arrakastuko dugu, eta elkarri eskua emango diogu (ah!, lasai egon ez dago kutsatzerik eta!). Bitartean desinformazio honekin, isiltasun nazkagarri honekin, gaixotasunak etengabe aurrera egingo du, gauzak prebenitzeko lehenengo hitz egin behar baita.

P.D.: Frogak Osakidetzak Donostiako Gros auzoan duen egoitzan egin nituen. Zurriola hondartzak duen aparkalekutik gertu, gasolinera aurrean. Tel: 28 49 00. Ah!, zeure benetako datuak ez daukazu eman beharrik.

M.G.

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





**E**

rretratu benetan bitxia da aste honetakoa. **Carmen Iriondok** ekarri digu. Bertan **Fernando Ansola** elgoibartarrak gain, aktore ospetsu bat ezagutu baduzue, ez zabilzate, ez, guztiz oker. **Mario Moreno**, “Cantinflas” aktore eza-

guna dugu. Fernando Ansola Mexicora futbol partidu internazional bat jokatzera joan zenean “Cantinflas” ezagutzeko aukera izan omen zuen eta argazki hau topaketa haren lekukoa da. Maribel Ansolak kontatutakoaren arabera, Fernando Ansolak partidu internazional mordoak jokatu zituen eta beti aritu zen lehen dibisioan: Oviedon lehenengo, Betis-en gero, Valencian ondoren eta Real Sociedad-en azkenik.



## ETXEBERRIA

### Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak. Donostia eta probintziako eritetxe zentruetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07 01

# Elgoibartarrak pri

Egunero-egunero. Asteazazpi egunetan. Ia telebista kate guztietan. Futbola, zer bestela? Aspaldian badirudi beste ezerk baino garrantzi handiagoa duen kirola dela. Eta saltsa horretan sartu nahi izan dugu. Baina gu ez gara Ronaldoren abileziak aztertzeraz joan. Ez dugu Errealaren eta Athletic-en arteko lehia erakutsiko. **BARREN** primeran jokotutako elgoibartarren bila atera da kalera. Asko eta asko egon dira eta oraindik ere bada bat edo bat. Iñaki Gabilondok luzatu zigan ideia eta berak eman dizkigu hainbat izen. Bere eta erreportaiaren azaltzen diren batzuen laguntzarekin honako lan hau osatu dugu. Beharbada bat edo batek ihes egingo zigan. Gure nahia guztiak ateratzea izan da. Kanpoan geratu denak, beraz, barka diezagula.



## Historikoak

### Juan Cruz Sol



- ❖ Adina: 49 urte.
- ❖ Postua: Eskuineko defentsa.

❖ **Ibilbide profesionala:** Elgoibarren hasi zen jubeniletan, eta 16 urte bakarrik zituen **Valentziara** joan zenean, hasieran jubeniletara. 17 urterekin debutatu zuen lehen mailan, Valencian, eta 11 urte egin

zituen bertan. Handik **Real Madridera** joan eta beste 5 urtez jokatu zuen bertan. 33 urterekin erretiratu zen. 29 aldiz izan zen internazionala.

❖ **Oroitzapen bat:** Holanda-España partidua. Cruiff izan zen Holandako kapitaina eta Sol Españakoa.



### Jose Gabiola



- ❖ Adina: 59 urte.
- ❖ Postua: Eskuineko interior-a eta delantero zentrala izan eta gero defentsa izatera pasa zen.
- ❖ **Ibilbide profesionala:** 15 urte zituela hasi zen **Flejen** eta 1953-54 urtean **Haundira** pasa zen. 1957. urtean fitxatu zuen **Real**

**ciudad** taldeak baina lehenengo urtean **Eibarren** jokatu zuen eta hurrengoan **C.D. Elgoibarren**. **Alavesera** pasa zen ondoren. 1960an debutatu zuen lehen mailan **Real Sociedad** taldearekin, 20 urte zituela, 1963an Puertollanoko **Calvo Sotelo** taldeak fitxatu zuen. 32 urtekin erretiratu zen.

❖ **Oroitzapen bat:** 1967ko apirilaren 24an Erreal eta Calvo Soteloren arteko partidua. Gabiolak Calvo Sotelon jokatzeko baina partidu hura irabaziz gero, Errela lehen mailara igoko zen, 1961-62 tenporadan bigarren mailara jaitsi zen eta. Partidu hartan lortu zuen Errealak lehen mailara igotzea, gaur arte.



### Ricardo Suarez



- ❖ Adina: 73 urte
- ❖ Postua: Defentsa zentrala.
- ❖ **Ibilbide profesionala:** Elgoibarko **Haundin** hasi zen eta handik **Basconiara** (Errealeko erregionalak), **Durangora** eta **Santander**dera. 1949an debutatu zuen lehen mailan

**Real Sociedaden**. 26 urte zituen eta 1956ra arte egon zen bertan. 1956-58 bitartean **Granadan** jokatu zuen. Bera iritsi zenean taldea bigarren mailan zegoen eta berak lehen mailan utzi zuen. Granadatik berriz ere **Elgoibarrera**, Haundira. 35 urterekin erretiratu zen.

❖ **Oroitzapen bat:** 1953an, Madrilen Errealak Bartzelonaren aurka Copa Del Generalísimo-ren finala jokatu zuenean. 3 eta 0 galdu zuten baina finalera iristea nahikoa garaipen izan zen.



# meran

**G**auzak asko aldatu dira. Zentzu guztietan. Ramon Unzillak gogorazi digunez, “gure sasoiak zapatilak askoz astunauak zian. Baloiak pisu gehixo zakan. Oin foallan jolastia askosaz arina da alde horretatik behintzat. Gainera, nik pentsatzen dot oin taktikak diferentia diala eta gehixo jokatzeko dala defentsan atakian baino”. Halere, ondo zaintzen zituzten, “Sevillan egon nitzanian, partidua eukitzen genduanian etxian, konzentrau eitxen ginan hotel batian. Kriston bainua hartzen genduan, danak relajatzeko”. Ramonen hitzetan, “presiorik haundixena periodistak eitxen zebeu partidua jokatu eta hurrengo egunian. Behin, Osasunako entrenadoriak esan zian partido batian trankil egoteko, gehixegi mobitxu be. Holaxe ein naban nik eta hurrengo egunian periodista batek kristonak esan zitxun neregatik, ez nakala iniziatibarik... Sutan jarri nitzan ze harek ez zakixan entrenadorian taktikia zala. Bere bila jun nitzan, banakixan nundik ibiltzen zan eta. Ez nabalako ikusi ze orduan harrapau banu, akabau eingo neuke!”.

## Juergan hanka apurtuta

25 urte nobio egin eta gero ezkondu zen Rikardo Suarez, “ni foalla zala eta kanpua bakarrik egon nitzan, andregairik gabe, eta hobeto gainera. Nik han ikusi nitxun kuadrak ikusteko bakarrik hobe!”. Behin edo behin, futbolari guztiek bizi izaten du arazoren bat. Rikardok kontatu digunez, “behin Atotxan, ni Santanderren jokatzeko nauala Realan kontra, arbitruak expulsau ein nindun. Gero, kanpua jendia, periodistak... danetik zain nakazen. Atzeko atetik urten naban, ihesi”. Jokalari fuertea izateko fama zeukan Rikardok, “behin, partidu batian lesiua euki naban. Medikak plakak ezin ziazan ein hurrengo egunera arte eta juerga ibili nitzan. Min piskat banakan baina... Gero jakin naban apurtuta nakala!”. Dena dela, Rikardoak aitortzen du pena merezi izan zuela, “ondo bizi ginan, erregien modura baina ez oin




## Josetxo Arakistain

- ❖ **Adina:** 59 urte
- ❖ **Postua:** Atezaina.
- ❖ **Ibilbide profesionala:** Elgoibarko **Fleje eta Club Deportivo** taldeetan hasi zen. 1954. urtean debutatu zuen lehen mailan, **Real Sociedad** taldean. 19 urte zituen. 1961.

urtean **Real Madridek** fitxatu zuen eta bertan izan zen 7 urtez. **Handik Elchera** eta 1971. urtean **Castellón**era. 20 urte eta gero erretiratu zen, 1973. urtean. 24 aldiz izan zen internazionala .

❖ **Oroitzapen bat:** 1965. urtean Belgradoko Partizan eta Real Madriden arteko partidua. Europako kopa irabazi zuten 6. aldiz.



## Luis Fernando Astigarraga

- ❖ **Adina:** 57 urte.
- ❖ **Postua:** Erdilaria (medio volante)
- ❖ **Ibilbide profesionala:** Elgoibarko **Haundian** hasi zen. 1961ean Sansek fitxatu zuen. 1963an, 24 urte zituela, hasi zen **Real Sociedad**en jokatzeko eta bertan egon zen 1965era arte. 1966an **Eibarrera** joan zen, 3. mailan zegoela. 1967an **Orenera** eta han 1971ra arte egon zen. 31 urterekin erretiratu zen.


❖ **Oroitzapen bat:** Orensen zegoela 30 partidu jokatu eta 30ak irabazi zituzten.



## Jesus Sabilondo

- ❖ **Adina:** 80 urte.
- ❖ **Postua:** Defentsa.
- ❖ **Ibilbide profesionala:** Elgoibarren hasi zen eta hemendik **Alavesera**. 27 urte zituela **Real Sociedadek** fitxatu zuen eta bertan jokatu zuen bost urtez. Errealetik **Alavesera** eta handik **Haundira**. 34 urte zituela erretiratu zen.

❖ **Oroitzapen bat:** Errealean zegoela Real Madriden aurka jokatu zuten partidua Atotxan. 1944. urtea zen eta Errealak 2-1 irabazi zuen.



## Manolo Unzilla

- ❖ **Adina:** 72 urte.
- ❖ **Postua:** Ezkerreko estremoia.
- ❖ **Ibilbide profesionala:** Elgoibarren hasi zen eta hiru urte egin zituen bertan. **Logroñes-era** joan zen hemendik (3. maila) eta bi urte egin zituen. **Barakaldon** urtebete egin eta **Cordobara** alde egin zuen. Handik **Jaenera**. Lehen mailan 28 urterekin debutatu zuen **Sevillan**. Bi urte egin eta **Osasunak** fitxatu zuen eta 2. mailatik 1. mailara igo zen. **Elgoibarren** jokatu eta gero, 32 urterekin erretiratu zen.

❖ **Oroitzapen bat:** Sevillan zegoela Athletic-aren kontra jokatu eta irabaztea. Barakaldon zegoela Athletic-eko jokalarien lagun handia egin zen eta haien kontra jokatzeko ilusio handia egitzen zion.



## Antonio Ansola

- ❖ **Adina:** 65 urte
- ❖ **Postua:** Zentrala
- ❖ **Ibilbide profesionala:** 1952. urtean egin zioten fitxa **Real Sociedad-en**. 1952-54 urte bitartean **Eibarren** jokatu zuen. 1955-61 bitartean, **Realean**. 33 urterekin erretiratu zen.

❖ **Oroitzapen bat:** Eibar 3. mailako txapeladun izan zenean.



eitxen diazen kontratu millonarixeu-kin”.

## 2.500 milioiko kontratuak

Ramonek azaldu bezala, “lehen irabazitxakuakin etxebat erosteko ailegat-

zen zan, eta hori ere justu. Gu kanpora juten ginan jokatzera eta etxia alkerrian hartzen gendun. Pentsau, Sevillan demaseko beruakin ezin lo einik... Oin aire akondizionaua eta holakuak daude behinbat. Oin pagatzen dabenakin, pentsau zenbat etxe

erosteko moduan dauan bat!” Jose Mari Arakistainek berak esan digun bezala, “nik ez dot uste inork preziorik dakanik eta gutxio, futbolian jokatziaगतिक 2.500 milioi pta. pagau laikenik”. Hau ei ere gal-detu diegu ea telebis-



**Tiburcio Beristain**  
1904-1953  
Atezaina

Honako hau ere Elgoibarren hasi zen. 1. mailan 19 urte zituela debutatu zuen, Alaves taldean. Gero, gerra zibila hasi zen eta Sevillan egin zituen hiru urte, gartzelan. Handik Irunera, Real Unión taldera. Sansen ere beste urtebete egin zuen. 30 urte zituela erretiratu zen. Internazionala izan zen Zamora porteroaren suplente.

Alaves taldean zegoela 1929 eta 1930 urteetan Ligako txapelkun izan ziren.



**Silvano Sabilondo**  
1903-1978  
Eskuineko estremo

Alaves taldearekin debutatu zuen lehen mailan. Elgoibarren hasi zen futboleant eta Tolosako taldean ere jokatu zuen. Silvinoren familiak esan digunez,

Athletic De Bilbaoren kontra jokatu zuen partidua askotan gogoratzen zuen.



**Antonio Azpiazu**  
1917-1978  
Ezkerreko estremo

Elgoibarren hasi zen futboleant eta hemendik Durango Cultural taldera joan zen. Handik Alaves-era eta ondoren Arenas futbol taldera. 1939an hasi zen Real Sociedad taldean. Garai hartan 2. mailan zegoen baina 1940-41 denboraldian lehen mailara igotzea lortu zuen, Antonio Azpiazu jokalaria zela. 22 urte zituen Errealean hasi zenean. 31 urte zituela erretiratu zuen.

Antonio Azpiazuren alabak, esan digunez, aita askotan gogoratzen zuen Alavesek Alemaniaren kontra jokatu zuen partidua.



**Paco Iriando**  
1911-1983  
Delantero zentrala

Armerian Maestria Industrialia ikasi eta Cadiz-eko San Fernando Lanbide Eskolara irakasle joan zen. Cadizeko futbol taldean jokatu zuen. 30ko hamarkadan Bartzelonako Español taldeak fitxatu zuen eta goleatzaileen artean toki bat egin zuen Bosch, Prat, Espada, Soler eta beste hainbat jokalariren artean. Gerrate zibila eta gero Frantziako Sete ekipoan hasi zen, 1. mailako taldea. Hemen ere goleatzaile handienetarikoa izan zen. Valenciako Levante taldean ere jokatu zuen eta beranduago Alaves eta Getxoko Arenas taldeetan. Futbola laga eta gero Elgoibarren bizi izan zen bertoko emakume batekin ezkondu baitzen, Rosario San Martinekin.



**Fernando Ansola**  
1940-1986  
Delantero zentrala

Haundin hasi zen. 18 urte zituela fitxatu zuen Oviedok, 1. mailako taldeak. Bi urte egin zituen bertan. Handik Betis-era eta gero Valenciara. Azken urteak Real Sociedaden pasa zituen. Bots bider izan zen jokalaria internazionala eta bere garaiko errematatzailerik onena izan zen buruz. Urrezko burua deitzen omen zioten. Valencian zegoela, Waldo jokalariaekin bikote ezinhobea egiten zuen. Bien artean jokaldi oso onak egitea lortzen zuten. San Mamesen bere urtegunean Athletic-en aurka 2 eta 0 irabazi zuten eta bi golak Fermandok sartu zituen. 34 urterekin erretiratu zen.



**Isidro Bangara**  
1912-1992

Delantero zentrala 1930. urtean Oviedok fitxatu zuen. Urte hartan 2. mailan zegoen eta 1931-32 denboraldian 1. mailara igo zen. 1933-36 urteetan goleatzaile nagusi izendatua izan zen. 1932-36 urteetan bitartean internazionala izan zen. 1941. urtean Almagroko San Lorenzo taldeak fitxatu zuen. 1943an Mexikon hasi zen eta 1946an Oviedora itzuli zen. 35 urterekin erretiratu zen. 1934an Chamartinen España-Portugalen arteko partiduan Españak 9-0 irabazi zuen eta Langarak 5 gol sartu zituen.




**Nicolas San Martin**  
1904-1972

Ezkerreko interiora Elgoibarren hasi zen futboleant eta 24 urte inguru zituela debutatu zuen lehen mailan Alaves taldean.

## Joan direnak





**Futbolean gola sartzen den momentua emozioz beteta egoten da.**

tan futbol gehiegi ez ote duten ematen. Rikardok, “partido guztiak ikusten ditzut” esan digu. Jose Marik, aldiz, “aurten oso-osua bakarria ikusi dot, derbixa. Bestela, aspertu eitxen naiz eta uste dot jendiari berdina pasauko jakola”. Jose Marik gogoan du Betis taldeko afizioa, “dauan onena da neretzat. Nik Sevillan jokatu naban baina Betiseko moduko afiziorik ez dao. Koloriak barru-barrutik bizi ditzue. Tabernako paretak berdez pintauta, kotxia ere berdian...”. Entrenatzaile gogorra omen da Jose Mari, hala aitortzen du berak behintzat, “baina biharrezkua da disziplina bat jartzia. Hori bai, gero jokalarixekin harreman ona lortzen badozu, giro benetan politxa sortzen da”. Oso desberdina da jokalaria edo entrenatzaile izatea, “jokalarixa zeranian zure buruakin bakarrik arduratu bihar zera. Entrenatzaile modura, berriz, jokalaria guztixen responsabilidadia dakazu, taktikak, entrenamientuak, kontrariuak... Danak euki bihar ditzuzu kontuan”. Jose Marik “presio” txiki bat izan zuen etxean futbolarekiko, “Jose lehengusua futbolista zan, Madridenten jokatzeko zaban eta neri ere hasteko esaten zien... Eta holaxe hasi nitzan”.

#### **Jokalarientzat eskolak**

Jose Mari lanbidez fisioterapeuta da, “gehixko gustatzen jata lana futbola baino. Dana dala, goizian nere lanian eta arratsaldian entrenatzen, gauzarik gustukoena eixia lortzen dot”. Baina, horiek biak eginda apenas geratzen zaion astirik beste afizo baterako, “perretxikozale amorraina naiz. Zoritxarrez ez dakat denbora asko eta gaur egunian jende gehixegi

ibiltzen da”. Gauza on asko eman dizkio futbolarik, “jende asko ezagutzen dozu eta hori aberasgarria da”. Baina bada zerbait berak gehituko

lukeena, “futbolistentzat eskolak. Nere garaixan, jokalarixek ez zaken ixa estudiorik eta karrera motza da. Zeozer ikastia oso inportantia da”.

Hirurek ere, beste guztiek bezala, oroitzapen ona dute futbolarik. Famaren lilura ikutzeko aukera izan zuten guztiek, Ramonen hitzetan, “ez zan oin beste, oingua zoraldia da. Baina, gu ere ezagunak ginan sasoi hartan eta politxa zan”.

Erreportaia egitekotan ginela esan genienean, gustura erantzun ziguten. Eta argazkia ateratzeko Mintxetan elkartu genituenean, entzun egin behar ziren hainbat eta hainbat kontu haien ahotan! Futbolarik gauza asko eman diela bistan zen!

## *Oraindik futbolean*



*Jose Mari Arakistain*  
48 urte  
Delanteroa eta gaur egun Beasain taldeko entrenatzailea

19 urte zituela Elgoibarko Haundian hasi zen baina urte berean Eibarren jokatu zuen. 20 urte zituela debutatu zuen 1. mailan Real Sociedad taldean eta 8 urte egin zituen bertan. Handik Sevillara joan zen eta 3 urte jokatu zuen Andaluziako taldean. 31 urte zituela erretiratu zen. Elgoibarko entrenatzaile zela, Haundia preferentetik 2.B mailara igo zenean.



*Jose Luis Gonzalez*  
32 urte  
Atezaina

Elgoibaren hasi zen eta 15 urte zituela fitxatu zuen Real Sociedad taldean. Jubeniletan eta Sansen ibili eta gero, 22 urte zituela debutatu zuen 1. mailan Errealarekin, 1985eko abenduaren 1ean hain justu. 28 urte zituela Valenciara joan zen (1. maila) eta pare bat denboraldi egin zituen bertan. Handik Valladolid-era (1. mailan baita ere). Iaz Marbellan jokatu zuen (2.A maila). Aurten, berriz, Jerez-eko taldean jokatzeko du (2.B).



*Joseba Etxeberria*  
Adina: 19 urte  
Delanteroa

9 urtekin hasi zen futbolean Elgoibaren eta 14 zituela fitxatu zuen Errealak. 17 urte zituela debutatu zuen 1. mailan, Real Sociedad taldearekin. Gaur egun Athletic-eko jokalaria da. Bere hitzetan, oraindik jokatu gabe dauka partidurik garrantzitsuenak.



## ■ Mendarotarrak Txiskolan

Datorren astelehenean, hilak 21, agertuko dira Oihana Tarragual, Leire Iriondo eta Elena Zubiaurre mendarotarrak Txiskola saioan. Sagar taldearen ordezkari izango dira mendarotarrak eta masuzta taldearena, berriz, galdakaoarrak. Aipatu behar da Mendaroko hiru neska hauek galdakaoarren aurretik geratu zirela. Txiskola gaueko 10ak aldera emititzen da ETB lean.

## ■ Zuhaitz Astialdi Taldearen programa

Zuhaitz-eak lehen hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako haurren-tzako ekintza programari hasiera emango dio larunbatean, hilak 20. San Bartolome parrokia eta Madalako Kristau Elkartearen barruan, kristau eta giza baloreak lantzen ditu Zuhaitzek jolasa eta dibertimenduaren bitartez. Larunbatero, hilaren 19an hasita maiatzera bitartean, arratsaldeko 5etatik 8ak arte parrokiak Ubitarten duen lokalean eskulanak, jolasak, irteerak etab. egiteko aukera izango dute.

## ■ Ipuin kontalaria Udal Liburutegian


Udal Liburutegiak Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa antolatu du datorren astearterako, hilak 22. Saioa 6 urtetik gorako neska-mutilei zuzendua dago. Arratsaldeko 5,30etan hasiko da kontakizuna.

## ■ Ikastaroak eta aisialdia Gurutze Gorrian

Gurutze Gorriak bi ikastaroa emango ditu. Bata herritar guztiei zuzenduriko sorospen ikastaroa, azaroaren 4tik 29ra bitartera. Eta bigarrena, Aisialdi zuzendari titulua eskuratzeko ikastaroa. Azken hau asteburuetan izango da eta azaroaren 9an hasten da. Bestetik, Gazteen Gurutze Gorriko Aisialdi Eskolan matrikulatzeko epea ireki da. Urte osoko ekintzak, Gabonetako parakera bisita eta probintzia eta Euskal Herriko topaketak egiten dira aisialdi programaren barruan. Parte hartzea nahi dutenek 74 38 64ra dei dezakete.



**Pilar egunean**, amabirjinaren eguna eta San Viator jaia ospatu zuten Pilar ikastetxean. Ikastetxeko irakasle, ikasle eta gurasoek elkarrekin ospatu zuten jaia. Benantzio Otaegi parrokoak eta zentroko zuzendari izandako bi frailek meza eman zuten, Itxaropena abesbatzak tarteka abesten zuelarik. Aparteko eguraldia lagun, ospakizunen ostean Guraso Batzordeak luntxa eskaini zuen.



**Elizako kanpandorra** konpontzeko jarri dituzten oihaletan Gazte Asanbladak presoan euskalherriratzearen aldeko mezua idatzi zuen joan den zapatuan. Gazte Asanbladakoek BARREnera bidalitako ohar batean zera adierazten dute: "Hispanitatearen egunean lan egiteko ohiturari uko egin nahi ez eta ekintza hau, EGIN egunkariak jasaten

duen publizitate boikota apurtzeko, komunikabide honek aurrera daraman 'egin ta egin' kanpainarako gure aportazioa izan da". Ekintza honen argazkiarekin Egin-eko portada egiteko asmoa du Gazte Asanbladak.

## Herriko Insitututua Alemaniako Heziketarako Kongresu europarrean

Herri Institutuko lau arduradunek, IMHko batek, Deba Beheko formaziorako udal teknikariak eta Bide-Egin moduluetakozuzendarriak datorren urriaren 26tik azaroaren 8ra bitartean, Alemanian eta Holandan izango den Heziketarako Europar Kongresuan parte hartuko dute. Leonardo europar programaren barruan kokatzen da kongresua eta lau herrialdek parte hartzen dute: Alemaniak, Holandak, Greziak eta Euskal Herriak. Euskal Herriaren Elgoibarko Herri Institutuak darama antolakuntzaren zama.

Euskal Herritik 20 bat lagun doaz.

Abenduan alemaniarrak eta holandarrak Grezian egon ziren. Gero graziarrak Elgoibarren eta oraingoan greziarrak eta euskaldunak doaz Alemania eta Holandara. Lau lan-taldetan banatuta, bakoitzak bere ikastetxean martxan jarri nahi duen proiektua aztertuko du. Joan aurretik ikastetxe bakoitzak bere proiektuak erdi diseinatuta dauzka. Hortaz, espezialitate hori ematen duen ikastetxearekin harremanetan jartzeko aukera izango dute han bertan.



**IMHko erreminta makinaren erakusketak** harrera ezin hobea izan zuen Kilometroak 96 ospatu zen egunean. Museoa-ren fondoko piezarik adierazgarrienekin erakusketa berezia antolatu zuten eta 700 bat lagunek bisitatu zuen. Ikus entzunezko euskarri baten bidez eskualdearen bilakaera teknologikoaren berri jaso zuten bertara hurreratu ziren guztiek, burdinoletatik hasi eta gaur eguneko erreminta makinara arte. IMHko arduradunek eskerrak luzatu nahi dizkiete antolakuntzan eta prestakuntzan parte hartu zuten guztiei.



## ■ Zine Kluba hasiko da datorren ostegunean

Ongarri Zine Klubak lehen pelikula emango du datorren ostegunean, eta ostiralean, hilak 24 eta 25. "El odio" izeneko izango da, 1995eko Canneseko Zine Jaialdian zuzendaritza onenari saria eman zioten filmea. Lehen saio honetan Ongarrikoek sorpresa bat prestatu dute. Zinearen munduko pertsonaia baten bisita izango da baina Soartek adierazi digunez, "ez dugu bere izena azalduko, sorpresa izatea nahi dugu eta". Antolatzaileen esanetan, pertsona hau zine klubaren babeslea izango da. Zine klubaren hurrengo emanaldiak honako hauek izango dira: azaroaren 7an; ondoren 14 eta 15ean; 21ean eta 22an eta azkenik 28an. Zinearen sarreraren zenbatekoa 400 pta.koa da eta hasiera ordua 22,15etan. Ikusleak ordurako joatea eskatu nahi dute antolatzaileek, emanaldia puntuan hasiko baita.

## ■ Kilometroen erakusketa

Hilaren bukaerara arte Kilometroak 96 egunean ateratako 150 argazkitik gora ikusi ahal izango dira Kilometroen dendan. Kilometroen jaia bizi ez zuten guztiei argazkien bidez ikusteko aukera eskaintzea da erakusketaren asmoa.

## ■ Literatur lehiaketak

Hiru literatur lehiaketa antolatu dira Eibar, Deba eta Ondarroan. Azken honetan Agustin Zubikarai Literatur Narrazio Sarien 3. edizioa kaleratu da. Euskal Herriko edonork har dezake parte, batuaz zein bizkaieraz idatziriko lanekin. Xehetasunak jasotzeko 94-613 43 44ra deitu. Eibarren, XII. Ipuin Lehiaketa antolatu da 14 eta 17 urte bitarteko eta eta 18 eta 25 urtera arteko gazteentzat. Euskaraz zein gaztelaniaz idatz daitezke lanak eta argibide-erako Eibarko Udaletxera deitu. Hirugarren literatur lehiaketa "Tene Mujika" narrazio laburren 14. deialdia da, Debako Udalak kaleratzen duena. Informazioa Debako Udalean eskura daiteke. Sariak ez dira nolana hikoak: Debakoan 150.000 pta., Eibarkoan 40.000 pta. eta Ondarroakoan 140.000 pta.

## Felisin Bergaretxe:

# "100 urtekin demaseko kontzertua emango dot!"

Ermuan jaio zen orain dela 81 urte. Felisin Bergaretzek urte asko daramatza Elgoibarren eta bazter guztietan da ezaguna. Gerra zibila bizi izan zuen, makina bat ofiziotan

ibili izan da eta duela bost urte pianoa ikasteari ekin zion. Bere etxean hartu gaitu, berba eta berba artean, beti piano aurrean, abesti bat eta beste jotzen zigun bitartean.

### - Sufrimendu askoko bizi-tza, beraz, Felisin.

- Bai, asko. Gerria bizi izan naban nik 20 urtekin. Akordatzen naiz zela faszistak sartu zianian aitxak alde eixia nahi zaban eta amak ez zion bakarrik juten laga nahi. Ni jun nitzan berakin. Portugaleteko 'puente colgántia' pasau gendun eta hantxe pasau gendun gaua jarritxa. Hurrengo egunian dinamitau eben 'puentia'. Nobixua gartzelan egon zan sei urtian eta hiru desterrautia.

### - Kozinera ona omen zara.

- Beti euki dot nik afiziua. 12 urte nakazeanian be, banakixan kanutilluak, madalenak, bonbak eta holakuak eitzen. Bilbon egon nitzan lanian kozinera, konde batzuen etxian, Condes de Montalbo. Neska gaztia nahi eben eta zela nere lehen-gusina bat donzella egon zan haren etxian...

### - Ondo ordaintzen al zuten?

- Bai, hilian 75 pta. Orduan asko zan zeatxik bestieci 10 pta. pagatzen ziu eta nere lan bakarra erosketa batzuk ein eta kozinatzia zan. Oso ondo egon nitzan. Gerria hasi arte egon nitzan. Eurekin



### "Montalboko kondien etxian egon nitzan kozinera Bilbon"

eraman nahi izan ninduen baina etxian nere biharra zeken eta...

### - Kopinak egiten hasi zinen.

- Bai, fabrika batetik moldiak bialtzen zozkuezen kartoizkuak eta guk kopiña eitzen genduan. Pezetia ateratzen genduan bakoitzeko.

### - Elgoibarrera etorri eta Sigman hasi zinen.

- Bai. Aitxa Ondarretan euki eben hiru urtian eta gero soltau. Nobixua, berriz, Celanovara eruan eben eta ni orduan etorri nitzan. Sigman hasi nitzan lanian eta josteko makinan

lehenengo probatzaileetarikua izan nitzan.

### - Ezkondu arte.

- Bai, nobixua libre laga zebenian, etorri eta ezkondu ein ginan. Orduan, oin Tiroriro dauan lekuan dendia zabaldu gendun.

### - Eta oraindik ere lanean.

- Bizitza guztia eman dot nik lanian. Oin ere egunero biloba eskolara eruan, jatekua preparau... Beste ezertarako astirik ez.

### - Kontaiguzu pianoarena.

- Nik beti euki dot

afiziua musikarako baina sekula denborarik ez. Behin, periodikuan irakurri naban anuntzio bat eta deitxu ein naban. Urte mordo bat nakazela baina pianua ikastia nahi nabala esan niuen. Jun nitzan eta holaxe hasi, poliki-poliki.

### - Astean behin?

- Bai, astian behin juten nitzan Donostira pianoko klase partikularrak hartzera. Oin laga ein dot ze denbora asko tartatzen dot haraino trenian juten. Nere kontu ibiltzen naiz.

### - Ez al da zaila?

- Bai. Batez ere ezker eskuakin jotzia. Nere ilusia akordeoia izan da beti baina pisu asko daka eta ezin. Holaxe hasi nitzan pianuakin.

### - Etxean jotzeko eskatzen al dizue?

- Ez, eta nik nahi ere ez. Jendia badakat aurrian begiratzen, nerbiosa ipintzen naiz eta etxata ondo urtetzen. Neri trankil jotia gustatzen jata, beti pieza melodikuak, lehenguak, ez oingo musikia modukua, dana zaratia da.

### - Noizko kontzertu bat Felisin?


- 100 urte hartzen baditxudaz, seguru eman-godotela demaseko piano kontzertua!

# Zcj ct tcm BERRI

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 24. GEHIGARRIA

## Hitzaldiak Jubilatuen Etxean

Joan den asteazkenean hainbat hitzaldi izan ziren Jubilatuen Etxean. Goizeko 11etan hasita, honako gaiak buruz egin zuten berba: zahartzaroaren erronka, emakumea eta jubilazioa, jubilatuen Elkartearen eta Jubilatuen Etxeen arazoak eta nagusiak eta ongizatea. Hitzaldi bakoitza 20 minutu ingurukoa izan zen eta jarraian entzuleek aukera izan zuten galderak egiteko. Hitzaldiak Jose Maria Aizpun, Gipuzkoako Jubilatu eta Pensionisten Elkartearen idazkaria; Maria Angeles San Juan, Elkartearen kolaboratzailea eta Alberto Garcia, lehendakaria izan ziren. Hauxe gain, Manuel Gonzal-



lez, Deba Beheko Jubilatuen Etxeen lehendakaria ere izan zen Elgoibarren. Ordukiak aldera bazkaria izan zen eta 80 pertsona inguru el-

kartu ziren. Egunari amaiera ona emateko, Gelatxok musika jarri zuen eta bat baino gehiago animatu zen dantzara.

## Motzak

### INSERSOren bidaia

Martxan daude aurten ere INSERSOK urtero antolatzen dituen bidaia eta oporraldiak. Baleariak, Kanariak, Andaluzia, Katalunia, Valentzia edo Murtzia eta kultur zirkuitoak dira aurten dauden aukerak. Interesatuak Balearietara edo penintsulara joan nahi badute bidaia agentzietara jo behar dute NANA eramanaz. Bi txanda izango dira eta bigarrena joateko eskaria egiteko epea azaroaren 2an hasiko da.

### Dantzaldiak eta omenaldia

Domekan, hilak 20, ohiko dantzaldiak hasiko dira Jubilatuen Etxean. Igandero, arratsaldeko 6etatik 9etara bitartean nahi duen guztiak dantza egiteko aukera izango du. Bestetik, datorren azaroaren 29an, ostirala, 80 urtetik gorako bikoteak eta urrezko eztaiak egiten dituztenak omenduko dituzte Jubilatuen Etxean. Egun horretarako lagunarteko bazkaria antolatu dute eta izena emateko goizeko 10,30etatik 12etara bitartean Jubilatuen Egoitzara zuzendu. Bazkarirako apuntatzerakoan 80 urtetik gorakoek NANA erakutsi behar dute eta urrezko eztaiak betetzen dituztenek, berriz, Familia Liburua.

### Ikasleak eta adineko pertsonak elkar laguntzeko programa

Gipuzkoako Foru Aldundiak programa berri bat jarri du martxan. Adineko pertsonak eta ikasle gazteak hartzen ditu kontuan. Helburu bikoitza du: batetik, adineko jendea ez sentitzea bakarrik edo gaizki gobernatua eta bestetik, unibertsitateko gazteek ikasturtean behar duten etxe arazoa konpontzea. Bi laguntza mota daude. "Lagun egitea" deitzen denaren bidez, ikaslea adineko pertsonarekin bizi da eta bertan erosten ditu jatorduak. Behar izanez gero, medikura joaten, erosketak egiten eta botikak egiten ere lagunduko dio ikasleak. "Laguntza ematea"n, berriz, ikasleak adineko pertsonari bere burua zaintzen laguntzen dio, etxeko lan batzuk egiten... Gastuak berdindu ahal izateko, Aldundiak dirulaguntzak ematen ditu laguntza mota eta adineko pertsonaren irabazien arabera. Programan parte hartzeko baldintzak: bakarrik bizi diren 65 urtetik gorakoa izatea, bere kasa moldatzeko gai izan eta elkarbizitza normalerako gaitzik ez izatea, ikasleentzat gela bat egokituta izatea, Gipuzkoan bizitzea eta ikasle senitarteko ez izateaz. Interesatuak Ongizate Sailera joan edo 900-434343 telefonora dei dezakete.

## AGUSTIN URIBEBARRENA:

# “Oin jaio banintz Indurain izango nintzen”

Agustin Uribebarrera izatez Eskoriatzakoa da. Halere, elgoibartar batekin ezkondu zen, Maria Beristainekin, eta ordutik lotura handia du gure herriarekin nahiz eta gaur egun Galizian bizi den. Urrezko eztaiak betetzen zituztela aprobetxatuz Elgoibarren izan ziren eta tartetxo bat lapurtu genien berbetarako. Agustinen pasioa bizikleta da. Orain gutxi, Galiziatik Elgoibarreraino bizikletaz etorri zen. Eta 79 urte ditu!

- **Gogoratzen al duzu zure lehen bizikleta?**

- Bai, gerra ostian lanian hasi nitzan eta bizikletia bihar baserrixik lanera juteko. Lelengo alkilau ein naban, egunian errial bi kobratzen zien. Baina oina aurreratu eta karrerakue erosi naban, 400 pta. kostau jatan, 22 urte nakazen.

- **Gainera, azkar ibiltzen zinen.**

- Bai, bizkor ibiltzia gus-tatzen jatan eta lagunek esaten zien ia karrera batera jun bihar nitzan. Holaxe, beste asko baino hobeto nebilela eta, lagun-en animua batetik eta neuri gustau bestetik, karreretan benetan hasi nitzan. Karrera onak ein nitxun.

- **Eta irabazi ere.**

- Bai, gerra ostian ipini-txako Subida a Arrate profesionalian hiruga-rren in nauen eta hu-rrengo urtien seigarren.

- **Halere, gero 40 urte bizikletan ibili gabe.**

- Bai, diru gutxi zauan eta denborarik ez. 25 ur-tekin laga naban. Or-duan oingo moduan eki-pua eukiko banu aurrera aterako nitzan baina ez zauan laguntasunikan eta gastua haundixa

zan. Laga ein bihar.

- **Orain balitz, Indurain izango zinateke.**


- Nik usten dot baietz, e! Pena haundixa dakat.

- **Fundizioan lan egin eta gero, bizikletan karga eramaten omen zenuen.**

- Bai, bizimodua aurrera etaratzeko, lan ostian juaten nitzen bizikletan garixe, babak edo jan kontue ekartzeko, klan-destinidarian. 80 kilo ekartzen nitxuan bizikle-ta gainian, danera igual 25 kilometruan. Gabez eitxen naban gainera!

- **Eta dirua irabazi.**

- Bai, fundizian baino gehixo! Baina persegidu eitxen zoztien, zelan klandestinuan ibiltzen nitzan... Orduan furgonetia erosi naben eta errekadista moduen hasi nitzen. Beranduo kamioi haunditxu erosi naben,



400 toneladakue eta denboriaz, obreruak hartu nitxun neure kontura. Sei kamioi ere euki nitxun eta holaxe etara dou bizimodua, asko pe-leaute. Lanagatik Galiziara jun ginan eta han bizi gera ondiok.

- **66 urterekin berriz bizikleta gainera.**

- Bai, erretiruakin. Eta oin hobeto nabil 25ekin baino! Kostau jaten lelengo, gorputza ein arte baina oin... Egunero-egunero urtetzen naiz bizikletan buelta bat ematera, bakarrik edo

lagunekin. Covadonga-ko potzuetara ere ixo nitzan semiakin, gogorra! Juan zan urtian ein naban.

- **Benidorm-era ere bizikleta eta guzti.**

- Bai, urtero juten gera eta sin falta eramaten dot bizikletia. Gaztetu eitxen naiz. Euki nitxuan 12 domekan 12 karrera beteranuenak eta beti irabazi eta neure hu-rrengua ni baino 11 urte gatzio zan.

- **Indurain ezagutzen omen duzu.**

- Bai, ni askotan egon izan naiz berakin eta ibili ere piskat. Benidorm-en ezautu naban, karre-ra baten. Asko ezautu nitxun, Indurain, Gorospe anaixak, Cabestani... Danekin dakat erretratu! Olanokin ez dakat traturik baina asko gus-tatzen jata, oso pertsona sentzillue da.

“Gaztetan, klandestinidarian igual 80 kilo eruaten nitxuan bizikleta gainian!”

## Pentsioarekin nahikoa al duzu bizitzeko?

Langabezia dela eta ez dela, egoera ekonomikoa oso ona ez dela eta... Askok eta asko hitzegin izan da gai honi buruz. Eta, nola ez, etorkizunari begira, gaur egungo gazteek aurrera begira pentsiorik jasotzeko aukerarik izango duten ere zailtzan jartzen duenik badago. Gaur egungo jubilatuek behintzat badute pentsiorik. Batzuek beste batzuek baino hobek. Eta eurengana jo dugu ea nola bizi diren galdetzeko.



**Natalia Antolin**  
66 urte

Nik ez dut pentsiorik kobratzen, sekula ez baitut lanik egin. Beno lana egin dut, horixe baietz. Oso gazte nintzela etxe batean izan nintzen zerbitzen baina kontraturik gabe eta gero, bizitza guztia etxeko lanak egiten. Horrek ez du dirurik ematen, ordea. Ez lehen eta ez orain. Senarraren pentsioarekin bizi gara nola edo hala, zorionez nahiko pentsio ona geratu zaigu baina seme bat daukagu etxean, langabezian dago eta hura ere mantendu behar da.



**Pedro Garate**  
64 urte

Erdipurdiko pentsua geratu jata neri baina ondo esan biharko moldatzen generala. Oin, sasoi hone-tan hiletan hastiak ere ez dau merezi eta. Hobia izan zitxakeen baina guri pasau zitzakun nik 60 urte nakazela itxi zala enpresia eta 62 urte nakazela jubilau bihar izan naban. 14 urte nakazenerako lanian nauan eta ordutik kotizatzen beti baina... Nik sekula ez dot ein seguru espezialikan. Andria baserritxarra da eta ostantzian beti etxeko lanetan ibilitxakua. Oin seme gaztia dakau gurekin etxian eta konpontzen gera.



**Paquita Pardo**  
71 urte

Pentsio nahiko bajua geratu zaigu guri, justu-justu egiten dugu aurrera baina hori hobe ezer baino. Senarra oso gazte hasi zen lanean baina gaisorik ipini zen eta berehala pentsiodun egin behar izan zuen. Ezintasun pentsioa dauka eta biok bizitzeko adina badaukagu. Halere, banaturta dagoen alaba daukagu eta hari ere lagundu behar izaten diogu noiz edo noiz. Pena da etxekoandreak pentsiorik ez izatea! Bizitza osoa lanean ezertarako!



**Mari Paz Ansuategi**  
71 urte

Alarguna naiz ni eta pentsioa jasotzen dut. Alabarekin bizi naiz eta eskas ailegatzen da baina tira, ezin kejavu! Nik baserrixan ein izan dot lan eta gero ezkondu, umiak hasi... Pagarik gabeko lan asko eindakuak gera emakumiok! Oingo gaztiek ez dakitx gerora eukiko daben pentsiorik ala ez, orduan ere izango da zeozer eta jefiek agindutakua ein bihar!



**Timoteo Juaristi**  
72 urte

Pentsio txikixa geratu jatan neri, aspaldikua. Oin dala 22 urte jubilau nitzan ezintasuna zala eta. Gurian 9 pertsona bizi izan gera, senar-emaztiok eta 7 seme-alaba. Oin gurekin bizi dia hirur eta ahal dabenakin laguntzen dabe. Hola izan bihar da gainera, horrenbeste urtian eurengatik lana ein eta gero, bueltan ere zeozer etortzia tokatzen da baldin eta eurak nahi badebe behintzat! Egixa da urte askuan lanian ibili eta gero hau kobratzeko penarik ez dabala merezi!

## Osteoporosiari buruzkoak

**H**ezurrak ez dira hilda dauden piezak. Etengabean aldatzen daude. Hezur kopurua gutxitzen hasten denean, osteoporosis gaitzaren aurrean gaudela esan daiteke.

Osteoporosi hitzak poros betetako hezurra esan nahi du eta bere ezaugarria, hezur kopuruaren gutxitzea da. Ondorioz, hezurra askoz ahulagoa bihurtzen da eta errazago apurtzen da. Gaixotasun honen batzuetan ez du sintomarik izaten baina bestetan, bizkarreko edo hezurreko mina sor dezake. Gaisotasuna oso aurreratua dagoenean eskeletoa deformatu egin daiteke, bizkarhezurra okertuz eta altuera txikituz.

Osteoporosia oso gaisotasun arrunta da eta gaur egun Estatu mailan ia 3 milioi pertsonak dute, gehienak emakumeak izanik. Arrazoiatariko bat, populazioa gero eta zaharragoa izatea eta gaisotasun honen eragile bat adina izatea.

Zenbat eta urteetan gorago egin, hezurak orduan eta ahulagoak egiten dira, bai gizon bai emakumeen artean. Halere, menopausiaren eragina asko igartzen da osteoporosi kasuetan estrogenu eta hormonon

gutxitzeak hezurri babesa kentzen baitio eta hezurra gehiago hondatzen da. Kaltzio gutxi hartzea da beste arrazoi bat. Kaltzio ezinbestekoa da hezurarentzat horregatik da hain garrantzitsua hartzaroen eta gaztaroen beharrezko kopurua hartzea hezurak ahalik eta sendoen egin daitezten. Menopausiarekin batera, kaltzio kopurua kontrolatzea komeni da eta esnea, gazta, yogurra eta arrain urdina jatea. Heredentziak ere badu eraginik gaixotasun honengan, bizitza sedentarioa izateak ere bai... Ariketa fisikoa oso garrantzitsua da gaisotasun honen prebentzio bide bezala. Ez dira bat ere aproposak, aldiz, kortikoideak, tabakoa, kafea, alkohola...

Osteoporosia berez ez da gaixotasun hilkorra baina hezurak sarri puskatzeak ezintasunera eramanez dezake gaixoa, nerbioengan eragin dezake min handia sortuz... Horregatik, ahal den heinean ekidin behar dira erorketak, esaterako, traba egin dezaketen elementuak kenduz, besteak beste, alfondrak, kableak eta abar... Lur irriskorrekin kontu handiz ibili behar da, eskailerekin ere bai...



### CONSUELO OTAEGI

#### Redondoa beteta

**OSAGAIK:** Redondoa, olio, gatz, kipula, koipea, arraultza, piper gorria eta berdea, azenarioa, idarrak eta txanpiak.

**PRESTAKETA:** Arraultza gogor, piper berde eta gorri edo nahi den beste osagaiz betetzen da redondoa. Horretarako, punta egiteko antzeko orratz bat erabiltzen da, lodiagoa dena eta erditik irekita zulo moduko bat duena.

Redondoa kazuela batean jartzen da olio, koipea, kipula eta azenarioarekin. Laban sartzen da eta bertan uzten ondo egin arte. Gero, geratzen denarekin saltsa egiten da. Saltsa honi idarrak, azenarioa, txanpiak eta beste edozein osagai gehitzen zaio. Redondoa zatitu, bandeja batean jarri eta ertzetan aurretik egin digun saltsa jartzen da. Nahi izanez gero, coñac-a eta ardo zuria eta bota daitezke.

GEHIGARRI HONETAKO KOLABORATZAILEAK: Amagoia Ruiz de Gauna eta Zaharren Biltokiko zuzendaritza.



**Mari Nieves  
Martinez**Oasis  
dendakoa**● Bizitza desertua balitz, zein litzateke bertako oasisia?**

► Ume bat edukitzea, bai haurdunaldia bai eta erditzea ere.

**● Zein espejismo bizi nahi zenuke?**

► Munduari buelta ematea izugarrizko esperientzia izango litzateke.

**● Norekin bizi nahi zenuke Paradisuan?** ► Nire senar eta semeekin.**● Nolakoak iraginarazten duzu Paradisua?** ► Paketsua.**● Izan nahi zenukeen pribilegio bat?**

► Mundu guztiarekin komunikatzeko hizkuntza guztiak jakitea.

**● Bizitzako zein hiru elementu gordeko zenituzke kutxa batean?**

► Pakea, osasuna eta alaitasuna.

**● Moda jarraitu ala egokitu?**

► Ez bata eta ez bestea. Estilo klasikoa daukat.

**● Kanpanadun prakak ala mallak?** ► Mallak.**● Zein opari jaso nahi zenuke Oasis dendan erosita?** ► Ispilu bat.**● Gorroto duzun txanpona?** ► Pezeta txikia.**● Gaztaroan gustuko zenuen musika taldea?**

► Formula quinta, Indios Tabajara...

**● Engantxatu al zaitu inoiz telenobelaren batek?** ► Ez, sekula ez.**● Superstiziorik ba al duzu?** ► Ez.**● Zure burua hitz batez definitu.** ► Normala.**● Zer egitea iruditzen zaizu erokeria bat?** ► Puenting-a.**● Gaur egun 18 urte bazenu zer egingo zenuke?**

► Bizitza aprobetxatu eta ahalik eta gehien disfrutatu.

**● Zein tributako gaztea izango zinateke?** ► Ez zaizkit tribuak gustatzen.**● Betirako maitasunean sinesten al duzu?**

► Bai, zaila da baina posible. Eguneroko lana da.


**● Zenbat urte bizi nahi zenuke?**

► Osasunarekin betirako bizi nahi nuke.

**● Besteengan gehien baloratzen duzuna?** ► Zintzotasuna.**● Zein pertsonaia historiko ezagutu nahi zenuke?** ► Luther King.**MAITE DUZUN HORI  
FALTA ZAIZU**

Neska eder bat deskribatzea buruan dedan asmoa lehendabizi gorputza eta gero bere barrengoa egia esan ederrak ditu aurre, atze ta albo berdin belarri, begi, matrailak, sudurra eta ahoa izan daiteke petral xamarra bestetan berriz goxoa hurrengoan serioa gardena edo lausoa baina zaila da ta bera gabe daramat bizi osoa era honetan jarraituz gero inora ere ez noa.

Nire ondoan izan nahi nuen baneukan borondatea giltza eskuan izanez gero aurkitu behar atea tirabiretan saiatu arren zaila zen eramatea ez ilusio, ez esperantza hobe nuen ez hastea amets gaiztoa bihurtzen baita lortu ezin den maitea dena adieraztea hitz gutxitan esatea behin ere ezin ondo igaro eguna edo astea nahiz niretzako mesede dudan zaila dun hi ahaztea.



IÑIGO OÑEDERRA

**E  
R  
T  
S  
O  
T  
A  
M**



*Irailaren 8an hil zen JESUS FERNANDEZ  
QUINTASen sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu  
hiletan lagun izan ziren guztiei.*



## HBk inpugnatu egin du Igor Barrutiaren kontratua

HBko Pello Mendizabalek prentsaurrekoan adierazi zuenez, "sindikatu eta abokatuekin kontsultatu ondoren Igor Barrutiaren kontratua inpugnatzea erabaki dugu". Errekurtsioa HBk eta LABek jarri dute, "Euskal funtzio publikoaren legeak ezartzen duena ez baita bete". HBko kidearen arabera, "hasteko, ez da inongo batzordetan aztertu lanpostu hori behar zen ala ez. Bigarrenik, ez da lehiaketa publikorik egin eta pertsona horrek ez du azterketarik pasatu, hortaz, ezin da onartu pertsona hori fijo egiterik". Legearen ikuspegitik, "iruzurra" egon dela dio HBk. Igor Barrutia ordezkapenak egiteko hartu zuten Udaletxean baina ordezkapenak bukatu ondoren, bertan geratu zen lanean. Kontratua berri gabe lanean egon zenez Igorrek idazki bat aurkeztu zien aginteriei bere eskubideak zein ziren azalduz. "Auziak epaiketara amaituko zuenez eta Udalak juizioan dirua galduko zuela argudiatuz, Gobernu Batzordeak fijo egitea erabaki zuen. Plenoak ere begi onez ikusi zuen erabakia". HBren esanetan, plenoak ezin du erabaki pertsona bat fijo egitea. "Udala instituzio publikoa da eta elgoibartar guztiek dute eskubidea lanpostu horretarako lehiaketa publikoan parte hartzeko". Errekurtsioa ipini ondoren, epaileak erabakiko du.

## Udalak kontsumitzaileen gida etxez etxe banatu du

**E**usko Jaurlaritzak argitaratutako kontsumitzaileen gida buzoneatu du Elgoibarko Udalak. Euskarazko alea banatu da etxe guztietan eta bat edo batek gaztelerazko liburua nahiko balu, Kontsumitzaileen bulegora jo besterik ez du, Merkatu Plazan.

Orain artean triptiko edo fitxa erako aholkuak argitaratu izan ditu Udalak Kontsumitzaile-

en Bulegoaren bitartez. Gai konkretu bat aukeratu eta horren inguruko hainbat datu ematen ziren horietan guztietan. Iaz Eusko Jaurlaritzako autobus bat herriz herri ibili zen kontsumitzaileei aholkuak eta informazioa emanaz eta, besteak beste, aipatu liburua ere banatu zuen. Beraz, litekeena da norbaitek gida etxean izatea aurretik. Kontsumitzaileak edozein zalantza daukanean liburura jo dezake argibide bila, bai eskubideei dagokienean, bai eta edozein eratako erreklamazioen bat egiteko orduan ere.

### Gai ezberdinak

Kontsumitzaileen bulegoetan sarrien jasotzen diren salaketa eta zalantzak jaso dira aipatu liburuan. Esate baterako, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak, elikagaiak, garraioak, bidaia-agentziak, autoak, etxebizitzak, aseguruak eta abar. Liburuaren azken kapituluak, hainbat telefono zenbaki datoz, kontsumitzaileak behar dituzten erabil ditzan.



## KAROBI PUB



Tel. 74 06 37  
San Frantzisko, 37

Bidaietako nahiz etxeko asistentzietarako:

## GRUAS PANA



Deba kalea, 13 • 20.870 ELGOIBAR ☎ 74 38 38 - Fax 74 43 32 Tel. mobila: 908 77 06 23


## Zelaia hotela (II)

- Hotela etxebizitza bihurtu denez, hainbat aldaketa jasan ditu bai barrutik, bai kanpotik ere.
- Mendebaldeko fatxadako beheko solairuan baoguneen aldaketa eman da. Egun, ertzetan tamainu desberdinetako leiho bana daude harlanduz eginak eta erdian bi ate, bata harlanduzkoa eta bestea hormigoizko bandez hornitua.
- Lehenengo solairuan goiko ardatzei jarraituz bandez inguratutako bi leiho gehiago ireki dituzte hiru leiho haundiren artean. Bigarren solairuan lehenengo baoguneak mantentzen dira baina ez lehen zuten tamainu berean.
- Hego aldeko fatxadako beheko solairuan lehenengo baoguneak mantentzen dira eta lehenengo eta bigarren solairuetan harlanduzko leiho bana daude eskubiko ardatzean, baina azken hauek itsutuak.
- Ipar aldeko fatxadan hamaika baogune daude gaur egun, eskubiko ardatzekoak harlanduzkoak eta goitik behera kokatuak aurkitzen direlarik. Beheko solairuan, berriz, bi ate daude.
- Ekialdeko fatxadan bederatzita leiho daude, harlanduzkoak denak. Hauetariko bat itsutua dago.
- Zelaia dorretxeko horma gainak ere aldaketak jasan ditu. Esate baterako, lehengo zarpeatua kendu eta harlangaitza bistan utzi da. Hormen garbiketa hau egiterakoan, zenbait leiho eta atek harlandua galdu dute eta honen ordez hormigoizko bandez hornitu dituzte. Beste leiho batzuk, ordea, zarpeatua kentzerakoan antzinako harlanduak goitik behera kateatuak ageri dira, dotoretasuna erakutsiz.
- Betirako galdu dira, ordea, egurrezko teilategala eta erlaiza landuak.
- 1930. urtean Zelaia hotelean egun osoko pentsioa 14 eta 20 pta. bitartean zegoen eta igogailua eta bainua eskaintzen zituen.
- Mende honetan hotel honek zenbait jabe izan ditu: Izeta, Zelaia, Altzibar eta Ulazia. Azken honek eraiki ditu etxebizitzak.

PELLO ARRIETA



## Alberto Ecenarro Ondarre (1918-1989)



- 1918ko apirilaren 10ean jaio zen Errosario kalean.
  - Bi anaia ziren. Aita Agirreko eskolan ibili zen gaztetan.
  - Gabilondoko "Llama" lantegian egin zituen urte batzuk. Geroago, Sigman hasi zen betirako.
  - Maria Teresa Agirrebeñarekin ezkondu eta seme-alabak izan zituzten.
  - Gerra sasoiari guardiak egin zituen Azkarateko gainean.
  - Esku pilota gogoko zuen, hainbat partidu jokatu zituen.
  - C.D. Elgoibarko presidentea izan zen urte batzuetan, eta Haundiak Gipuzkoako txapeldun izatea lortzen zuenean, Udaletxeko balkoitik mintzaldiak egiten zituen. "Harek urtiak alaiak".
  - Alberto "Kakume" zen denentzat. Benetan popularra eta hizlaria.
  - Ezkondu aurretik makina bat aldiz prozesioetan San Juanen irudia eraman-dakoa zen.
  - Oso kirolzalea zen eta karta jokoa gustatzen zitzaiona.
  - 1989ko ekainaren 8an hil zen.
- JUANITO GOROSTIZA



**CRISTALERIA  
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak  
Obra komertzialak*

Urasandi 12 behea  
Tel-Fax: 74 04 89



**ZURE HAURRARENTZAKO  
PRODUKTUEN BANATZAILEA  
EUSKAL HERRIAN:**  
- Kotxeak eta sehaskak

**BAMBINO**

Estazio kalea 3  
☎ 20 69 93  
EIBAR

DURANGO: ☎ 681 14 83 / 620 35 72 - BILBO: ☎ 444 71 04

## MOTZAK

### Ikasleentzako prezio bereziak Kiroldegian

Udal Kirol Patronatuak IMH, Herri Institutua eta Gestio Eskolako ikasleentzako abono bereziak egiteko aukera kaleratu du. 97rako abonoa 9.000 pta. kostako zaie eta Kiroldegiko bai eta Mintxetako instalakuntzak ere erabili ahal izango dituzte. Era berean, Kiroldegiko ikastaro eta ekintzetan izaten diren beherapenak egingo zaizkie. Bazkide egiteko 74 44 15ra deitu.

### Palenciara irteera

Morkaikok Palenciako Alto Carrión-era mendi irteera antolatu du datorren azaroaren 1, 2 eta 3rako. Camporredondoko aterpetxean izango da ostatua. Igo daitezkeen mendiak Espigüete, Curavacas eta Peña Prieta dira. Joateko interesa duten guztiak ostira-lean arratsaldeko 7,30etatik aurrera edo larunbatean goizeko 11,30etatik aurrera eman dezakete izena Morkaikoren egoitzan edo 74 92 97ra deituta.

### Elgoibartarrak Gipuzkoako karate txapelketan

Olaizaga Karate taldeko 8 mutilek joan den domekan Usurbilen jokatu zen Gipuzkoako infantilen eta alebilen txapelketan parte hartu zuten. Hauxek izan ziren Elgoibarko karate-lariak: Josu Durán, Aingeru Osoro, Asier Pires, Jon Cortés, Adrian Lame-las, Carlos Feijoo, Unai Segundo eta David Rodriguez. Domina bakarra lortu zuten elgoibartarrek: infantiletan David Rodriguezek bron-tzezkoa.

## "Rabiosa" jaurtiketa

### "97an txapela berriz lortzeko asmoa dut"


■ **Zer da "lanzamiento de la rabiosa"?** - Nafarroa inguruan eta azken aldiari Murcian jokatzeko den herri kirol bat da. Nik jokatu nuena Marcillan izan zen. "La rabiosa" aitzur bat da, lurra lantzeko. Horrela deitzen diote, amorrua ematen duela hari kolpe egitea.

■ **Jokoa zertan datza?** - Aitzurra kirtenetik hartu eta besoaz pare bat buelta emanez ahalik eta urrutien jaurtitzea. Bi bira baino gutxiago emanez gero edo lurra ikutzen badu, jaurtiketak ez du baliorik.

■ **Kanpotarrak ere baziren.** - Iaz australiarrak eta frantsesak egon ziren baina aurten ez. Neu nintzen elgoibartar bakarra eta Eibartik koadrila bat joan zen. 80 bat lagun ginen; gaztetxoak, emakumeak, nagusiak eta beteranoak. Azken kategoria honetan 14 bat ginen.

■ **Errekorrik bai?** - 24,10 metro jaurti nituen eta 24 metrotan zegoen errekorra. Dena den, jaurti aurretik urduri xamar nengoen. Telebistan elkarrizketa bat egin zidaten eta jaurtitzerakoan marritatik metro erdira edo geratu nintzen, kale ez egitearren. Badakizu, esperientzia falta.

■ **Haruntzago botatzeko gai zara?** - 24 metrorekin arerioi irabazteko nahikoa zela esaten zidaten baina aurreko



egunean apur bat aritu nintzen aitzurrarekin eta 30, 27, eta 28 metro ere jaurti nituen. 25 metrotik gorako jaurtiketak izan ziren guztiak.

■ **Nolatan sortu zitzaizun zaletasuna?** - Emaztea Caparrosokoa da eta orain arte txapelkun izan dena ere hangoa da. Nire etxetik gertu entrenatzen du eta egunero ikusten nuen, bada, behin probatu egin nuen. Erraz irabazten niola ikusi nuen, 7 metroren alde ateratzen nion. Horrela, 51 urte bete nituenean, beteranoetan partehartzeko gutxieneko adina denez, aurkeztea erabaki nuen.

■ **Datorren urterako titulua berreskuratzeko asmorik?** - Bai, bai. Agian komeniko litzaidake entrenatzea. Udaletxeko batek esan zidan Mintxetan entrena dezakedala baina jendeak ikustea lotsa ematen dit.

■ **Munduko txapelketa zen, gainera.**

- Hala ipintzen du trofeoan, 10. edizioa. Elgoibarren ez dakit munduko txapelkun asko egongo diren, baina bazen Elgoibarrera notizia on bat heltzeko ordua, ez?

- Adina: 51
- Kirolari izatekotan? Txirrindularia
- Kirolik egiten duzu? Mendira joaten naiz igandero
- Jaurtiketa kirolen bat? Pisu jaurtiketa egin izan dut

**HISPANIA**  **ZURICH**

**J. Romera**

Mota guztietako aseguroak eskaintzen dizkizuegu.

Artekale z/g behea. Elgoibar. Tel: 74 07 52 - 74 29 08

**BOUTIQUE DEL PAN**

Enpanadak                      Enbutidoak

Baserriko ogia                      Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

# Fernández Suso erraz nagusitu zen zikloturisten lasterketan

**E**guerdiko 12etan puntu-puntuaz irten ziren joan den zapatuan Plaza Handitik Lagun Taldeak antolatutako zikloturistentzako lasterketan parte hartu zuten 57 elgoibartarrak. Amaieran, ordea, 55 txirindulari sartu ziren. Helmugara Jose Mari Fernández Suso iritsi zen lehena, bigarren sailkatua baino kasik minutu bat lehenago.

Eguraldi aparta lagun zutelarik, zikloturista "bereziren" bat ere ikusi genuen irteera puntuan: Guillermo Garate alkatea, hain zuzen. Txantxetan aritu zen irteera puntuan, Pantanirekin antza bazuela esanez. Italiarra bezain txirindulari ona delako izango ote? Dena den, ez zuen ez, esfortzu makala egin. Plazatik San Pedrorra 29 minutu eta 16 segundotan iritsi zen.



Gillermo Garate antiejuekin. Ez ohiko partehartzailea.

## SAILKAPENA

- 1- Jose Mari Fernández (14'54")
- 2- Santiago Blanco (15'34")
- 3- Jorge González (15'57")
- 4- Felix Oyarzun (16'02")
- 5- Jon Oregi (16'11")
- 6- Ramon García (16'22")
- 7- Aitor Leanizbarrutia (16'37")
- 8- Felix Iglesias (16'41")
- 9- Moises Uriarte (16'53")
- 10- Joseba Egaña (16'53")



## Pilar Arriola Donostiako marathoian

Pilar Arriolak Donostiako marathoia korritu zuen joan zen domekan. Marathoi osoa, hau da, 42 km-koa korritzen duen lehen aldia



da, orain arte egin duen lasterketarik luzeena marathoi erdia izan baita. "30 kilometro einda nauzkazenen hasi zan benetako marathoia; 30etik 35era bitartekuak izan zian txarrenak". Eguraldi beroa eta haize handia zegoen arren, 3 ordu eta 52 minutuko denbora egin zuen Pilarrek. Entrenamendu modura 100 kilometro korritu ditu azken aldiaren astero. "980 partehartzaile ginan, 16 emakume. Karrera 730ek amaitxu gendun". Partehartzaileen artean beste elgoibartarrak ere ikusi zuela esan digu Pilarrek. "Guillermo Regil eta Iñaki Conderekin ein naban topo baina ez dakitx karrera amaitxu zaben ala ez". Atsedean egun batzuk hartu ondoren Donostia-Behobia lasterketa prestatzen hasi da Pilar.

# KIROL

## EMAITZAK

### Futbola

- Elgoibar 2 - Urola 0 (**Jubenilak**)
- Elgoibar 9 - Zumaiako 0 (**2. jubenilak**)
- Haundi 2** - Alavés 0
- Pedrusko 0 - Urki 5 (**2. erreg.**)
- Elgoibar 2 - Beasain 0 (**Oho. kadeteak**)
- Elgoibar 0 - Aloña Mendi 2 (**1. erreg.**)
- Lagun Onak 6 - Elgoibar 3 (**Infantilak**)

### Eskubaloia

- Elgoibar E.T. 29 - Don Bosco 5 (**Kad. mutilak**)
- Elgoibar E.T. 24 - Bidebieta 7 (**Jub. neskak**)
- Egia 17 - Elgoibar 28 (**Jub. mutilak**)
- Beasain 14 - Elgoibar 21 (**Seniorrak**)

### Pilota

- (Aretxabaleta) Lasagabaster /Bergara 8 (Lagunak) León I / Balzola 22

## AGENDA

### Futbola, Mintxelan

- Larunbata, 19**
- 10,00 Elgoibar - Lizardi (**neskak**)
- 11,45 Elgoibar - San Patricio (**Kadeteak**)
- 13,30 Urki A - Gazteak (**2. jubnilak**)
- 15,15 Eibartarrak - Pedrusko (**2. erreg.**)
- 17,00 Elgoibar - Hamaikak Bat (**1. erreg.**)
- Igandea, 20**
- 10,00 Urki - Antzuola (**2. erreg.**)
- 11,45 Elgoibar - Añorga (**Infantilak**)
- 15,15 Urki B - Elgoibar (**2. jubenilak**)
- 17,00 Eibar - Euskalduna (**1. erreg.**)

### Eskubaloia, Kirolegian

- Larunbata, 19**
- 16,00 Elgoibar E.T. - Aloña Mendi (**Jubenil mutilak**)
- 17,30 Elgoibar E.T. - Legazpia (**Seniorrak**)

### Areto Futbola, Kirolegian

- Ostirala, 18**
- 22,00 Elgoibar F.S. - Gure Txokoa (**1. maila**)
- 23,00 Elgoibar F.S. - Moulinex (**Autonomikoa**)



# 1997ko GIDA

Gure gidan Elgoibar eta Mendaroko

## KOMERTZIALA

telefono komertzial guztiak aterako ditugu.

prestatzen ari

Herritarrentzat gida erabilgarriena,

gara Elgoibar eta

erosoena eta errazena. Guri esker beti egongo zara zure bezeroen eskura, 365

Mendaroko telefono komertzial

egun zabalik, 24 ordu egunean. Zure negozioaren publizitatea egin nahi

guztiekin. 1996ko Gidan agertu

baduzu dei ieizaguzu lehenbailehen eta aukeratu zer den komeni zaizuna:

ez bazinen edo daturen bat oker

izena negritaz ipini, publizitate moduluak,... aukera guztiak zure esku.

bazegoen deitu lehenbailehen

# 74 37 04

# Erotismoaren erreginak

**Erotismoak protagonismoa hartu du azken aste honetan Kokoe Komiki Elkartearen eskutik. Erotismoz jantzi nahi izan zuten IV. Komiki Jardunaldiaren inaugurazio ekitaldia. Horretarako, komikigile onenen marrazki eta istorio “pikantez” horniturik zegoen Kultur Etxeko erakusgelaren barruan Bilbotik etorritako hiru “Drag Queen”ek show berezia antzetzu zuten.**

“Trío tauriton, lo levanta todo”, izen honekin eta ihauterietarako apropos jantzita agertu ziren drag queens-ak ikusminez zegoen ikusle-goaren aurrean. “Sekula ez da Kultur Etxeko erakusketa batean hainbeste jende bildu” adierazi zuen Ana Santolaya kultur zinegotziak aurkezpenean. “Zerbaitegatik izango da”, zioen jendeak. Erotismoaren gaiak eta Drag Queens horien presentziak sortutako morboogatik, dudarik gabe. Antolatzaileek luntxa eskaini zuten eta segidan “transformazioren erregiñen” show barregarriarekin jendeak kasik ordubeteko tarte alai pasatzeko aukera izan



zuen. Barre algar a k e t a txiste berdeak bata bestearen ondort i k e n t -



## Gemma Monrealek Segoviako Parador-ean erakusketa egingo du

Hilabete oso batez egongo dira ikusgai Gemma Monreal-en koadroak Segoviako Parador Nazionalean. Erakusketarik erakusketa dabil Gemma azken aldian. Joan den hilean Mutrikun egin zuen erakusketa eta oraingoan Segoviaraino eramango ditu bere lanak. Gemmak azaldu bezala, “oso inportantea da neretzat Segoviako Parador-a bezalako leku batean

nire lanak zintzilikaturik ikustea, handik jende asko pasatzen baita”. Begiak gustuz jasotzen dituen irudiak margotzen ditu Gemmak, asko Elgoibarko txokoak dira. “Elgoibarko herria hemendik kanpo ezagutzera emateak asko poztzen nau”. Aurrera begira Marcelo Góngora margolari ezagunarekin batera erakusketa kolektiboa egiteko asmoa dauka Gemmak.



## Iñaki Etxabe

### “Egualdixak ez zigun laga Satopanth eitzen”

**27 urte dituen elgoibartar honek badu afiziorik: mendia. Beste guztiak bezala hau ere mendi txikiekin hasi zen,ertainekin jarraitu zuen eta, poliki-poliki 7.000 m.ko gailurrak egiteko grinak ziztatu zuen.**

**Orain dela pare bat urte Perun izan zen eta Huascaran igo zuen. Aurten, berriz, Indian izan da Satopanth-eko tontorrera iristeko asmoarekin. 7075 m.ko mendia berau.**

**Kasualitatea.** Goierritarrek antolatu zuten Satopanth mendirako espedizioa. Iñakik Perun izan zenean ezagutu zituen haietako pare bat. Orain hilabete batzuk mendian topo egin zuten eta Iñaki ere animatu zen. Hasieran bost pertsonak osatzen zuten taldeari seigarrena gehitu zitzaion.

Abuztuaren 19an atera ziren eta irailaren 28an bueltatu.

**Diru kontuak.** Kamisetak atera, jaietan txoznak jarri... Era honetako espedizioak nahikoa garesti ateratzen dira. Gainera, Satopanth mendira igotzeko baimenagatik 285.000 pta. ordaindu behar izan zioten Indiako Mendi Federazioari. Guztira, baimena, bidaia eta bertan pasatako 40 egunak 200.000 pta.gatik atera zaizkio.

**Papeleoa.** Ia astebete eman zuten Nueva Delhin papeleoa asuntoa zela eta. Espainiako enbajadak turista bisatua eman zien eta Indian espedizio bisatua eskatu zieten.

**Klima.** Monzoia pasatuta egoten da normalki Iñaki Indian izan zen datan. Baina, aurten atzeratu egin zen eta uste baino gehiago iraun zuten euriek. Horrek, logikoki, eragina izan zuen espedizioan eta nahi baino beranduago abantatu ziren mendian gora. Kanpo basera iritsi eta 12 egun pasa arte ez zuten mendia ikusi.

**25 portadore.** Delhin autobusa hartu zuten Gangotriraino, herririk



altuena. Herri sakratu bat berau. Herri hartan bertan agentzia baten bidez 25 portadore kontratatu zituzten. Euskal Herritik 250 kilo pisu eramane zuten. Hiru egunetako trekking-a egin eta gero iritsi ziren kanpo basera, 4.900 m.ko altueran zegoena. Hasierako egunak aklimatatzen egin zituzten. Iñakik esan digunez berak ez zuen inolako arazorik izan baina bere taldeko batzuk burukominak, ezer egiteko gogo falta eta antzeko sintomak izan zituzten. Kosta egiten omen da altuerara ohitzea.

**Jatekoa.** Portadoreekin batera sukaldaria ere kontratatzen dute. Haiek, logikoki, Indiako janaria prestatzen dute nahiz eta ahale-

gintzen diren ahalik eta espezia gutxien ipintzen. Iñakik kontatu digunez, 40 egun egon da arroza jaten. Halere, ez du pisurik galdu.

**Materiala.** Bi gauza dira oinarritzkoak era honetako espedizioak egiten direnean: zakua (zero azpitik 15 gradu normalena da) eta butaniloa. Izan ere,

elurra urtuz lortzen dute ura mendi goian eta kontuan izanik horrelako irteeretan pertsona batek eguneko gutxienez 3 litro ur behar dituela, atera kontuak! Goizeko 3ak aldera frontala jarri eta ilunetan abantatzen ziren. arratsaldeko 3ak aldera geratuz.

**Nahi baina ezin.** Eguraldiak ez zien bat ere lagundu. Kanpo base-tik atera eta kanpo 1 eta 2ra iristea lortu zuten. Eguna joan eguna etorri belanera arteko elurra izan zuten etengabe. Alud arriskua zegoela eta butanilo bakarra igo zuten beste kanpo-basean ahaztuta, onena atzera egitea zela erabaki zuten. 6.000 m.ko altueran eman zuten buelta. Mendiak gehiago ahal izan zuen kasu honetan mendizaleek baino. Beti ezin izaten da. Baina Iñaki hasia da hurrengo espedizioan pentsatzen. Ez dauka ezer erabakita, baina berriz ere Indiara itzultzea ez litzaioke bat ere inportako. Mendiari esker, gainera, paisaia ederrak ezezik, kultura diferenteak ezagutzeko aukera ere izaten du.



## Salerosketak

- ❖ EHIZARAKO ESKOPETA salgai. ☎ 74 17 20
- ❖ SOINU BAJOA saltzen dut. 96koa. Piano teklatura dauka. ☎ 74 03 01
- ❖ FORD SCORT R-S TURBO autoa saltzen dut. SS-AG. Oso egoera onean. ☎ 74 05 14/74 15 16
- ❖ HIRU HUSKY SIBERIAN txarkurkume saltzen ditut. ☎ 74 41 45 Javi
- ❖ ERREPIDEKO BIZIKLETA bat salgai. Kuadroaren tamaina 50. Campagnolo Mirage. 105 shimano kanbioak. 2 urte. 65.000 pta. ☎ 75 51 75 Javi
- ❖ LIBURU hauek erosiko nituzke: "Intermediate Matters" (Ed-Longman), "The Heinemann English Grammar" (Ed. Heinemann) eta "Dublin People" M. Binch (Ed. Oxford. Bookworms kolekzioa). ☎ 74 07 74 Igor (gauzez deitu)
- ❖ SEAT PANDA SS-E salgai. Oso merke. ☎ 75 60 53
- ❖ "La Unión" elkarteko bazkide akzioa salgai. ☎ 74 05 05
- ❖ Golf GTI autoa saltzen dut. SS-AS. Oso egoera onean. ☎ 17 44 33
- ❖ BIBOLIN BAT saltzen dut oso egoera onean. ☎ 74 26 35 Manuela
- ❖ REM/IEEko lehen mailako LIBURUAK erosiko nituzke. ☎ 74 12 91
- ❖ BX-RE AUTOA saltzen dut. Egoera onean. ☎ 74 08 85
- ❖ LOKAL BAT saldu edo alokatzen dut Urasandi kaleko 7an. ☎ 74 18 94/27 78 08 Angel
- ❖ Auto bat daukat saltzeko. TALBOT SOLARA. Egoera eta prezio onean. ☎ 74 30 02 (gauzez)
- ❖ ILARAKO MONOPATINAK saltzen ditut, lau erroberakoak. ☎ 74 20 95 Iban
- ❖ AUTO TELEGIDATUA saltzen dut bateriarekin. Egoera onean. ☎ 74 22 75
- ❖ TRABESIAKO ESKIAK saltzen ditut. Mendiko materiala ere bai: arnesak, sokak, katu hankak. ☎ 74 40 62 Agustin
- ❖ LOGELA OSOA daukat saltzeko. Baita sarrerarako takiloia ere. ☎ 74 24 57
- ❖ SEAT IBIZA SS-AG saltzen dut, oso egoera onean. Beti egon da garajejan. ☎ 74 10 59

- ❖ ABDOMINALAK LANTZEKO "Boumerang" taula eta gomazko "Beuchat-Marlin" urpeko arrantza fusila ditut salgai. Berriberriak. ☎ 74 36 36

## Lana

- ❖ Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ 74 04 75
- ❖ Konfidantzako familia batek au-pair bat behar du Northampton (Ingalaterra) irailetik aurrera. ☎ 74 15 73
- ❖ 17 urteko neska pertsona nagusiak zainduko lituzke. Egunez edo gauzez. Etxeko lanak eta jatorduak ere egiten ditut. Esperientziarekin. ☎ 74 36 38
- ❖ Emakume batek nagusiak zainduko lituzke. Esperientzia daukat. ☎ 75 62 18
- ❖ Klinikako laguntzaile eta Gutxitu Psikikoen Hezitzaile tituluak dauzkat eta lan egingo nuke. ☎ 74 34 68
- ❖ Neska euskaldunak urte guztian zehar gaixoak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Autoa dut. ☎ 75 61 79

## Partikularrak

- ❖ Marrazketa industrial eta die-driko partikularrak ematen ditut. ☎ 74 43 98 Iñaki

## Etxebizitzak

- ❖ Deuston pisua betetzeko neska behar da. ☎ 74 33 38 Vanesa
- ❖ Pisu bat behar dut alokatzeko Elgoibarren lehenbailehen. ☎ 909 22 36 27 Leire
- ❖ Pisua salgai Bernardo Ezenarro 5ean. Berogailua, 3 logela, jangela, sukaldea, komun bat eta 2 ganbara. ☎ 74 15 90
- ❖ Beste batzuekin KONPARTITZEKO etxe bila nabil. ☎ 74 09 44
- ❖ Pisua SALGAI SANTA ANA kalean. 3 logela, sukaldea, jangela, 2 komun eta ganbara. ☎ 86 12 47 - 74 35 86
- ❖ Pisu bat ALOKATU nahi dut Elgoibarren. ☎ 45 35 59
- ❖ Etxebizitza SALTZEN DA SAN BARTOLOME kalean. Sukaldea, bi komun, bi logela eta egongela-logela ditu. Jantzita eta berritua. ☎ 74 04 99

- ❖ Beste batzuekin bizi izateko PISU BILA nabil Mendaron edo Elgoibarren. ☎ 61 96 60 Ana

- ❖ PISUA SALGAI daukat LEKEITION. Handia eta itsasora begira. ☎ 74 32 48

- ❖ Jantzitako pisua daukat alokatzeko P. Muguruzan. ☎ 74 04 75

- ❖ Elgetan BASERRI BAT salgai. Lasai deitu. ☎ 12 09 67 / 12 71 10

## Garajeak

- ❖ Auto txiki batentzako marradun garajea alokatzen dut. Batzoki azpian. ☎ 74 01 13

- ❖ Garaje bat saltzen dut Arregitorre Iean. ☎ 74 30 81

- ❖ Garaje itxi bat salgai Arregitorren. ☎ 74 12 53 (Pilar)

- ❖ Garage itxi bat saltzen dut Santa Anan. ☎ 74 21 21

- ❖ Marradun garaje bat alokatzen da pista beltzean. ☎ 74 01 77

- ❖ Garaje bat saltzen da King-Kongen. ☎ 76 17 95

## Agurrak

- ❖ Zorionak Estherri 28. urtebetzean. Guraso eta ahizparen partez.

- ❖ Zorionak eman nahi dizkiot nire amari urriaren 6an urteak egin zituelako eta barkamena eskatu berandu zoriondu nuelako. Iñakik.

- ❖ Ikastolako 6. mailako ikasleak Itziar Ulazia andereñoa zoriondu nahi dugu hilaren 15ean urteak bete zituelako. Zorionak.

- ❖ Zorionak Lorea Vazquez-i 15 urte egin zituelako pasa den ostegunean. Lehengusin Ainhoa eta Leireren partez.

- ❖ Hilaren 19an urteak beteko dituen aitxitxa Soarteri zorionak eta musu handi bat biloba Miren eta Idurreren partez.

## Bestelakoak

- ❖ Etxebizitza jatzeko denetik behar du Caritasek. ☎ 74 10 09 / 74 12 57

## PREMIAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

- Anbulategia:
- Larrialdiak.....461111
  - Txanda hartzeko.....743354
  - Planning-a .....742950
  - Alkoholiko Anonimoak..740385
  - D.Y.A (anbulantzia) ..464622
  - Gurutze Gorria.....743864
  - Mendaroko Ospitalea756264
  - Drogomenpekotasun Z. 741008
  - Odol Emailak .....743936

### GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak.....740442
- PESA (Eibar).....102131
- Taxi geltokia.....740898

### UDALA

- Euskara Zerbitzua.....744366
- Udal Kirol Patronatua744415
- Kultura Zerbitzua .....742158
- Mendaroko Udala ....756100
- Ongizate zerbitzua...743736
- Udaletxea .....741050
- Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

- Caritas .....740142
- Elgoibarko Izarra.....741626
- Kontsumo Bulegoa ...743088
- Liburutegia .....743525
- Musika Eskola .....742145
- Mintxeta .....744315
- Parrokia .....740842
- Kirolegia .....741361
- Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

- San Lazaro Egoitza...740296
- Zaharren Biltokia .....740526

### IKASTETXEAK

- Haur Eskola.....74 21 41
- Herri Eskola .....74 08 79
- I.M.H. ....74 41 32
- Institutua .....74 02 67
- Ikastola .....74 44 41
- L.H.I.....74 44 80
- Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

- BARREN.....74 41 12
- El Diario Vasco .....74 40 73
- El Correo Español...74 10 82
- Egin.....10 84 21
- Zazpiki irratia .....74 34 74

## 18 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“G punto caliente” eta “El hombre que mira”

Kokoek antolatutako ziklo erotikoaren barruan

## 19 LARUNBATA

16,00 LARUNBATERO AISIALDI EGITASMOA

2. mailatik 5era bitarteko haurrentzat

✓ Plaza Handian

Antolatzailea: Atxutxiamiak B.T.

17,00 ZUHAITZ AISIALDI TALDEAREKIN EKINTZAK

✓ Ubitarteko Parrokiaren lokaletan

Antolatzailea: Zuhaitz Astialdi Taldea

16,30-19,30-22,15 ZINEA

“Independence day”

## 20 IGANDEA

18,00 DANTZALDIA JUBILATUENTZAT

✓ Jubilatuen Etxean

19,30-22,15 ZINEA

“Independence day”

## 21 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Independence day”

## 22 ASTEARTEA

17,30 PELLO ANORGA IPUIN KONTALARIA

✓ JLiburutegian

Antolatzailea: Udal liburutegia

22,00 ZINEA

“Independence day”

## 24 OSTEguna

22,15 ZINE KLUBA

“El odio”

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

## 25 OSTIRALA

22,15 ZINE KLUBA

“El odio”

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

## txandak

### FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
19, larunbata:	Bidasolo	Anduaga
20, igandea:	Bidasolo	Anduaga
21, astelehena:	Bidasolo	Zabaleta
22, asteartea:	Bidasolo	Zabaleta
23, asteazkena:	Bidasolo	Zabaleta
24, osteguna:	Bidasolo	Zabaleta
25, ostirala:	Etxeberria	Escala

### OKINDEGIA:

20, igandea: EIZAGIRRE

# ZineA

**Independence day**

Zuzendaria: Roland Emmerich  
Antzezleak: Will Smith, Jeff Goldblum, Bill Pullman.

EEBBetan takilako errekorrak hautsi dituen pelikula da. Will Smith aktore ezaguna, extralurtarren aurka arituko den aramdako pilotu bat da. Hondamen handi baten kontakizuna da, efektu berezi neurrigabez lagunduta.



# ONGARRI zine kluba

**El odio**

Zuzendaria: M. Kasovitz  
Pariseko auzorik marjintuenetan bizi diren emigrante gazteek pilotutako gorrotoari buruzko pelikula da. Auzo hauetatik Pariseko erdigunera doazen hiru gazteren noraezko bidaia deskribatzen da. Vinz judua da, Hubert, beltz afrikar bat eta Said arabiarra. Lagun arabiar baten osasun egoeraren berri jakin nahian Pariserara doaz. 24 orduko bidaian, hainbat zailtasunekin egingo dute topo: poliziak eta skinheads-ak.



# GREMIOEN GIDA

## ARROZTEGIAK

### BIENA

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 74 31 16

### GARCIA

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 74 32 38

### JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Ubitarte, 2  
☎ 74 13 33

### LODOSO

Leihoak  
Ermuaranbide, 16  
☎ 74 34 90

### SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 3  
☎ 74 36 34

### ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 74 05 47

### ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak  
Deba kalea 16  
☎ 74 03 96

Gremioen gida honetan  
azaldu  
nahi baduzu, deitu !

☎ 74 37 04

## ITYRGINTZA

### ANGEL

Santa Ana, 5  
☎ 74 17 61

### JAVI

Erretxindi, 1  
☎ 74 14 80

### JUAN CARLOS S.L.

Urasandi 59-61, behea  
☎ 74 34 87

### PAGOAGA

San Antolin kalea, 13  
☎ 74 02 79

### ZALDUA

Urasandi, 26  
☎ 74 05 30

### ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5  
☎ 74 07 89  
☎ 908 14 30 40

## PINTURAK

### FERMIN

Urasandi, 57-3  
☎ 74 39 91  
☎ 909 76 28 80

## ISOLAMENDYAK

### GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak  
Ubitarte, 7  
☎ 74 30 94

## IGELTSERITZA

### KIDEOK S.L.

San Roke, 17  
☎ 74 34 86  
☎ 989 58 37 61

### ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24  
☎ 74 34 18

### JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24 - 2B  
☎ 74 29 87

### PATXILLO

Pedro Muguruza, 13-5  
☎ 908 31 96 42

## ELEKTRIZITATEA

### ARAMAR

Morkaiko, 1  
☎ 74 12 80

### AZPELETA

San Frantzisko, 51  
☎ 74 12 38

### BETI ARGI

Errosario, 6  
☎ 74 16 44

### URZELAI

Santa Ana, 12  
☎ 74 13 76



CASA ASTIGARRAGA



**25** urte  
zure zerbitzura

Errosario, 16-18  
Tel. 74 32 68  
20870 ELGOIBAR

# KIROLAK



*Kirolean espezialistak  
gara*

# LORA DENDA

*Orain tokirik  
aproposenean  
Txankakua zubi parean*



**DOMUSANTU EGUNERAKO ENKARGUAK HARTZEN DITUGU**